

LAPURTUTAKO LURRAK

Paraguaiko militarrek eta enpresaburuek egindako lur jabetzeak berriro agerian

ATZERRIA / Gaur8

Zortzi milioi hektarea inguru dira Paraguaiko lurra-
ren arazoaren era-
kusle, eta, aldi be-
rean, Alfredo
Stroessnerren diktaduraren
herentzia.

Diktadoreak lur horietako gehienak bere aliatu politikoen artean banatu zituen eta legezkoak ziren jabeei kendu zizkien, nekazari pobreei, alegia.

Stroessnerren diktaduran (1954-1989) kendutako lur horiek berreskuratzeko aldarriak gaurkotasuna hartu du azken egunotan, hainbat nekazaritza arloko enpresaburuk hiru senatariren aurka jarritako salaketan ondorioz. Enpresek lurrik gabeko nekazarien okupazioak sustatzea egozten diete senatariei.

Baina enpresen salaketak bumeran efektua izan du, eta Egia eta Justizia Batzordeak 2008an diktadurako biktimei buruz egindako txostena argitaratu atera du berriro. Legez sortutako batzorde horrek egindako txosteneko atal batean iruzur bidez erositako lur eremuen zerrendak aipatzen zituen, baita erosleen izenak ere.

7.800.000 hektarea inguru dira, gehienak 1954 eta 1988 artean banatuak, eta horietatik milioi bat inguru 1989 eta 2003 artean bereganatu zituzten diktaduraren onuradunek.

Azalera hori Paraguaiko lur produktiboen %32,7 da, eta herrialde osoko lurraldearen %19,3. Egun, Paraguai da Latinoamerikako lurra-
ren jabetzarik desorekatuena duen herrialdea, Oxfam eta beste erakunde batzuen arabera.

Aipatu zerrendan Stroessner bera agertzen da. Halaber, Andres Rodriguez jenerala, diktadura osteko lehen presidentea

la zortzi milioi hektarea –Paraguaiko lur produktiboen herena– bereganatu zituzten militarrek eta enpresaburu handiek Alfredo Stroessnerren diktaduraren babespean. Orain enpresaburu horietako batzuk lurren okupazioen kontra agertu dira eta hainbat salaketa jarri dituzte, baina horrek bumeran efektua izan du, argitara atera baita berriro nekazari pobreei egindako lapurreta masiboa.

izan zena eta kolpe militarrean parte hartu zuena. Gainera, diktadorearen guraskidea ere bazen Rodriguez.

Eta erregimenaren sostengu politikoa zen Colorado Alderdi-
ko buruzagiek ere nekazari po-
breen lurra bereganatu zituz-
ten. Hala nola Stroessnerren
idazkari pribatu Mario Abdo
Benitezek, gaur egungo Para-

guaiko presidentearen aitak,
hain zuzen.

Beste hainbat militar eta en-
presaburu ageri dira txostene-
an. Baita atzerrikoak ere. Beste-
ak beste, Anastasio Somoza
Nikaraguako diktadoreak
8.000 hektarea lortu zituen.

Iraultza Sandinistaren ondo-
ren Somoza 1979an Paragui-
n errefuxiatu zen eta urte batzuk

geroago hil zuten atentatu ba-
tean.

«OPARITUTAKO LURRAK»

Lurra jabetza eskubiderik ez zuten aktoreei «oparitu» zizkieten, Lurra-
ren Garapenerako
Institutu Nazional-
eko (Indert)
buruan izan zen Alberto Alde-
retek azaldu duenez. Alderete
erakunde horretan egon zen
Fernando Lugoren Fronte Gua-
su ezkerreko koalizio-
ko Gobernu-
an (2008-2012).

Haren esanetan, gertatuta-
koa jatorrizko prozesuaren en-
dekapenaren ondorioa izan da.
Kubako Iraultza-
ren ondoren John F. Kennedy-
ren AEBetako Gobernuak neka-
zaritza erreforma proposatu
zuen Latinoamerikako. Erre-
forma egin bai, baina lurra la-
purtzeko erabili zuten.

«Estatu politika izan zen, modu masiboan planifikatua izan zelako eta lurra prezio irragarrian banatzen hasi zela-
ko. Lur sail horietako asko bir-
saldu egin zituzten: prezio fis-
kalean erosi eta merkatuko
prezioan saldu», azaldu du.

Colorado Alderdi-
ko Nicanor
Duarte Frutos-
en Gobernuak
(2003-2008) hainbat salaketa
aurkeztu zituen, legez kanpoko
jokaera horien kontra. Ondo-
ren iritsi zen Lugoren Gober-
nuak salaketa gehiago aurkez-
tu zituen lehen auzialdiko
epaitegietan.

Horietatik bostek bakarrik
egin zuten legezko ibilbidea,
Estatuaren aurkako epaie-
tan atzera bota baitzituzten, Pro-
kuradoretzak salaketa horiek
aurkezteko ahalmenik ez duela
argudiatuta. Nicanor Alderete-
ren ustez Konstituzioaren aur-
kakoa da ebazpen hori, izan ere,
Paraguaiko Lege Nagusiak
berariaz izendatzen du erakun-
de hori ekintza horiek bultzat-
zeko.



Hala ere, duela urtebete Auzitegi Gorenak emandako epai batek ahalmen hori aitortu zion. Inderteko buru ohiak «itxaropen argia» dela esan du, eta bere ustez, eragin handia izan dezake. Aldi berean adierazi du erabaki horren ondorioz jarri zituztela Paraguaiko Landa Elkartek (ARS) eta Paraguaiko Industria Batasunak (UIP) hiru senatariren aurkako salaketak.

«BOTERE ZAHARRA»

Enpresarien talde horiek hiru legegile salatu zituzten, Guasu Fronteko bi eta Alderdi Demokratiko Aurrerakoiko beste bat, nekazarien legez kanpoko okupazio ekintzen aldeko eragin okerra bultzatzeagatik.

Senatariek Canindeyu departamenduko Pindo ganadutegiko lurrak bisitatu zituzten, hainbat nekazari familiaren aldarrikapenak entzuteko; izan ere, hainbat urte daramatzate lur hori okupatzen, eta desjabetzea eskatzen dute.

ARS eta UIP elkarteek salaketa jarri zuten Fiskaltzaren aurrean, eta senatariek beren inbestidura galtzea eskatu zioten Kongresuko presidenteari.

Hugo Richerrek, Guasu Fronteko bi senatarietako batek, esan duenez, «legez kanpo lur jabetzeak izan duen inpunitatearen» eta «botere zaharren» babesean egindako trantsizio ereduaren erakusle dira ekimen horiek.

Horrez gain, lurrak berreskuratzekeko Lugoren Gobernuak egindako politikak gogoratu ditu. Lugo Colorado Alderdiak Parlamentuan sustatutako epaiketa batek kendu zuen kargutik. Paraguaiko ezkeraren arabera, «kolpe parlamentario bat» izan zen.

Colorado Alderdiko buruzagi historikoa den Blas Riquelme

Aurreko orrialdean, janaria prestatzen Asuncionen, iragan urrian nekazarien zorrak bertan behera uztea eta legez kanpo jabetutako lurrak berreskuratzea eskatzeko egindako manifestazioan. Goian, protestarako prestatzen. Norberto DUARTE | AFP



ere Egia eta Justizia Batzordearen txostenean ageri da, iruzurrezko esleipendun gisa, bitarteko pertsona baten bidez. Hamazazpi pertsona hil ziren 2012an Estatuak eta Riquelme familiak lur batzuen harira zuten gatazkan, nekazariak kanporatu zituztenean.

Paraguaiko nekazarien egoera larritu den unean berragertu da lur lapurretaren auzia.

NEKAZARIEN MOBILIZAZIOAK

Gaur egungo Gobernuak nekazarien egoera hobetzeko akor-

dio bat onartu zuen. Baina, hala ere, nekazariak jarraitzen dute –hainbat urtez egin duten bezala– manifestazioak egiten Gobernuari eskatzeko zorrei eta ekoizpenari buruzko akordioa bete dezan.

Hitzarmen horrek lau puntu biltzen ditu, hainbat hobekuntza gauzatze aldera: lurrak eskuratzea, kredituak birfintzatzea eta berregituratzea, zorrak erregulatzea eta familia nekazaritzarako suspertze ekonomiko eta produktiboa bultzatzea.

«Estatu politika bat izan zen, izan ere, modu masiboan planifikatu zen eta lurrak prezio irrigarrian banatu ziren. Ondoren, lur sail horietako asko birsaldu egin zituzten»

Zerrendan daude Stroessner bera eta Andres Rodriguez jenerala, diktadura osteko lehen presidentea. Eta Stroessnerren idazkari Mario Abdo Benitez ere, egungo presidentearen aita

Nekazariak eskari zerrenda luzea idatzi dute, besteak beste, okupatutako lurretako kanporatzeak bertan behera uztea, 500.000 hektarea baso berritzea eta legez kanpo jabetutako lurrak berreskuratzea.

Horrez gain, familia nekazaritzaren susperraldi produktiboa, komunitate indigenena eta hezkuntza, osasun, etxebizitza eta babeserako aurrekontuak %20 handitzea eskatzen dute.

Halaber, pandemiak eragin dako krisi ekonomikoaren ondorioz eta azken hilabeteetako lehortearekin haien egoerak okerrera egin du. «Orain ez dugu besterik, ez baitira gure ekoizpenak ateratzen, lehortearekin dena galdu dugu», adierazi zuen Jorge Galeano nekazarien erakundeko buruetako batek joan den hilabetean Asuncionen zorrak bertan behera uztea eskatu zuen manifestazioan.